

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ana Sanchez Tena

*Urretxu,
Gipuzkoa
(1952)*

Aurkibidea



Biografia



Higuera de la Serenan jaioa, Badajozko probintzian. 3-4 urterekin Olmos de la Esguevara joan ziren bizitzera (Valladolid). Bost anai-arreba dira. Han 16-17 urte bete arte egon ziren, eta familia osoa Antzuolara joan zen bizitzera. Gurasoek osasun arazoak zituzten, eta zaila zen haientzat nekazaritzan lan egitea. Horregatik erabaki zuten Antzuolara joatea: osaba bat zuten han, Bergarako torloju tailer batean lanean, eta anai-arrebetako batzuk (Ana bera ere bai) bertan hasi ziren lanean. Handik gutxira, Telefonikako zerbitzuaren ardura eskaini zieten, Antzuolan: etxea Telefonicarena zen, eta familia guztiak egin zuen lan bertan. Anak ez zuen euskaraz ikasi (ahizpa txikiak bai). Ezkondu, eta Urretxura joan zen bizitzera. Bi seme-alaba izan zituen eta hasieratik argi zuen euskaraz egingo zituztela ikasketak eta euskaldun izango zirela. [Gorka Hermosa](#) semearekin batera elkarrizketatu dugu, Bertakotzen proiekturako.

Zintak

101-254

- **Proiektua:** 101L - Bertakotzen Urretxu-Zumarraga
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-12-27
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Valladolid-etik Antzuolara

- **Erref:** 101-254/003
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:04:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Higuera de la Serenan jaio eta Valladolid-en hasi zen. Hamazazpi urte zituenean, familiarekin Antzuolara bizitzera joan ziren eta ezkondu zenean, Zumarragara joan zen. Euskal Herrira zergatik etorri ziren azaltzen du. Ezkondu aurretik, torlojugintzako lantegi batean lan egiten zuen Bergaran.

2. Telefono-etxean lanean

- **Erref:** 101-254/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Lehenengo hilabeteetako esperientzia
- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:

Ez zitzaion gustatzen Valladolid-en bizitzea eta oso pozik aldatu zen Antzuolara. Herrian oso ondo hartuak izan ziren. Herriko telefono-zerbitzuan lan egitea eskaini zieten ahizpei. Lana nolakoa zen kontatzen du.

3. Euskara iaksteko aukerarik eta denborarik ez

- **Erref:** 101-254/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Eleaniztasuna » Eleaniztasunaren esperientzia pertsonala

Laburpena:

Anak ez zuen behar izan euskarara hurbiltzea eta gainera ez zuen denborarik. Ahizpa txikienak aukera izan zuen. Baina argi zuen seme-alabak euskaldunak izango zirela.

4. Udan, Valladolid-eko herrira

- **Erref:** 101-254/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:10:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Lehenengo hilabeteetako esperientzia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Antzuola bizitzera joan zirenean, lana izan arren oso soldata baxua zuten. Valladolid-era udan eta oporretan bueltatzen ziren.

5. Seme-alaba euskaldunak ditu

- **Erref:** 101-254/007
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:10:21. **Bukatu:** 00:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Integrazioa » Euskara, integrazio hizkuntza

Laburpena:

Seme-alaben klasekideen gurasoekin harremana egin zuten eta gaur egun, lagun-talde hori mantentzen dute. Seme-alabak euskaldunak izatea nahi zuen. Senarra Segoviakoa du.

6. Seme-alabak haien artean beti euskaraz

- **Erref:** 101-254/008
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Haurrak ikastolan zeudenean, Anak haien artean euskaraz egitera behartzen zituen, nahiz eta berak ez ulertu. Hitz asko ikasi zituen orduan.

7. Jubilatuen etxean euskara ikasten

- **Erref:** 101-254/015
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Eleaniztasuna » Hizkuntza ikasketa

Laburpena:

Ana euskara ikasten hasi zen pandemiaren aurretik. Astean bitan joaten da eta oso pozik dago. Hitz egitea asko kostatzen zaio baina ulermena hobeagoa du.

8. Euskara, integratzeko funtsezko tresna

- **Erref:** 101-254/018
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Integrazioa » Euskara, integrazio hizkuntza

Laburpena:

Inoiz ez du pentsatu bere aurrean euskaraz aritzea errespetu falta bat dela. Euskara, integratzeko funtsezko tresna dela uste du.

9. Pozik eta integratua Zumarragan

- **Erref:** 101-254/020
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:21:01. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Ez da inoiz baztertua sentitu kanpoko izateagatik. Zumarragan kanpoko jende gehiago zegoen eta hasieran haiekin harremandu arren, bertako lagunak egin zituzten seme-alabak ikastolan hasi zirenean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com